

Victoriano Balerdi Urreta

- ♦ Amezketan jaio zen, 1870/ 01/11n.
- ♦ Arrasaten hil zen, 1903/05/09an.
- ♦ Zazpi urterekin hasi zen musika ikasten Alegian, Juan Jose Oñaederra organistarekin.
- ♦ Tolosan jarraitu zuen musika ikasten, Felipe Gorriti maisuarekin, 1883 arte.
- ♦ 1883tik 1892 arte, Madrilgo Kontserbatorioan egon zen musika ikasten, Manuel Mendizabal, Rafael Hernando, Tomas F. Grajal eta Emilio Arrieta maisuekin.
- ♦ 1888an, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka eskuratu zuen, oposizioz; horri esker egon zen Madrilen 1992 arte.
- ♦ 1892an, Arrasateko organista-plaza lortu zuen, oposizioz, eta hor bizi izan zen heriotzak goiz eraman zuen arte.
- ♦ Organista oso ona; oroimen ederra utzi zuen Arrasaten.
- ♦ Konposatu zituen obren edertasuna ikusita, konposatzen maisua izatera iritsiko zela diote, gazterik hil ez balitz.
- ♦ Obren grabazioak: “Organo Vasco del s.XX, I” Aitor Olea Juaristik Azkoitiko organoan interpretatuta: *Preludio, Preludio, Caprice Pastorale, Fugetta, Andante, Preludio*.

Eresbilen dauden obrak:

2 pièces du 1º ton	órg	
Andante	órg	
[Anuntio vobis]	VV/órg	
Caprice - pastorale	órg	
Entrada	órg	
Fuguetta	órg	
Fuguetta (Sortie)	órg	
Miseremini	Solos/Ti/Ti/B/órg	
Miseremini	Solos/S/A/B/órg	
Motete al Sado. Corazón de Jesús		Tsolo/órg
Motete villancico a solo y coro	Ti/Ti/T/B	
O gloriosa	Ti/A/T/B	
O sacrum convivium	T/T/Br/B/órg	
Onera	p	
Prélude du 1er ton, nº4		órg
Prélude du 1er ton., nº3		órg
Salve	Solos/Ti/A/T/B/órg	
Salve	Tsolo/Bsolo/Ti/A/T/T/Br/B/órg/orq	
Villancico Annuntio vobis [arreglo]	vn/órg	

Iturriak: Auñamendi entziklopedia, Eresbil, Basque-media.com

Prudencio Balerdi Urreta

- Amezketan jaio zen, 1880/04/28an.
- Arrasaten hil zen, 1927/10/07an.
- Gasteizko seminarioan egin zituen apaiz-ikasketak eta musika-ikasketak ere bai.
- Seminarioko organista izan zen.
- Calahorrako katedraleko plaza lortu zuen, baina bere lurraldeak erakarrita, laster joan zen Getariara.
- Victoriano anaia Arrasaten hil zenean (1903), Jose Joakin Arin parrokoak Arrasatera eraman zuen plaza hori betetzera.
- Arrasaten bizi izan zen 47 urtez.

- Ez zuen asko konposatu, baina organista eta pianista oso ona zen.
- Inprobisatzaile harrigarria; bat-batean fuga bat, akademikoki perfektua, sortzeko ahalmena zuen.
- Garai hartako musikari garrantzitsuek miretsi egiten zuten.
- Eresbilen agertzen diren obrak honako hauek dira:

o Anuntio vobis	S/A/T/T/Br/B/órg
o Ave verum	S/T/Br/B
o Gozos a la Virgen del Carmen	Solos/S/A/B/órg
o Gozos al Sagrado Corazón de Jesús	Tsolo/S/T/B/órg
o Liberame Domine	S/A/T/B
o O cor amoris	Ssolo/Bsolo/S/A/T/B/órg
o O sacrum	S/A/T/B/órg

Martin Gorostidi Altuna

- ♦ Apaiz sakramentinoa, organista eta konpositorea.
- ♦ Amezketan jaio zen, 1913/07/11n.
- ♦ Bilbon hil zen, 1988/06/19an.
- ♦ Tolosan ikasi zuen musika, Eduardo Mokoroa maisuarekin. Harmonia, Luis Urteagarekin.
- ♦ Bokazio erlijiosoak bultzatuta, Tolosako Sakramentinoetan sartu zen, eta 1940an fraide egin zen.
- ♦ Madrila joan zen, eta, han, musika ikasten jarraitu zuen, Benitu García de la Parra maisuarekin.
- ♦ “Escolanía del Santísimo Sacramento” sortu zuen.
- ♦ Lau urte egon zen La Habanan, eta Jesús de Miramarreko organista izan zen.
- ♦ Musika erlijiosoa konposatu zuen, batez ere.

Eresbilen dauden bere obrak:

Missa festiva in honorem Sancti Joseph	Ti/Ti/órg
Missa festiva in honorem Sanctissimi Sacramenti	T/T/B/órg
Misa Angelica	Ti/A/órg
Misa de la Asamblea Santa	Co/órg
Missa en honor de San iõ X = Misa in honorem Sacti Pii X	T/T/Br/B/órg
Missa in honorem Sacti Pii X	S/A/T/B/órg
Meza nagusia	Co/órg
Missa in honorem Beati Petri Juliani eymard	T/T/B/órg
Cantantibus organis	VV/órg
Laudate Pueri Dominum = Alabad, niños al Señor	VV/órg
Pro Benedictionibus Sanctissimi Sacramenti	Co/órg
Zer ogi	VV/órg
Junto al Sagrario	VV/órg
Alabatua	VV/órg
Sacerdotes domini	VV/órg
Hac note	S/A/T/B/órg
Tu célico socorro	Co/órg
Birjiña maite	VV/órg
Misa Comunitaria Infantil	VV/órg
Ave María	S/S/A/A/órg
24 Melodías vascas	órg
12 Melodías vascas. II cuaderno.	órg

Pello Zabala Bengoetxea

- ♦ Frantziskotarra, konpositorea, organista, meteorologoa...
- ♦ Amezketan jaio zen, 1943/11/02an.
- ♦ Hamar urterekin joan zen Arantzazura; Foruan (Bizkaia), Zarautzen (Gipuzkoa) eta Oliten (Nafarroa) ikasi zuen, eta 1964an egin zen fraide.
- ♦ Amezketan hasi zen musika ikasten D. Emigdio apaizarekin, pianoko karrera egin zuen Marcelino Idoyagarekin. Leonardo Celayarekin ikasi zuen organoa jotzen eta Oliten Jose Mari Ibarbiarekin ere bai. Arantzazuko organista da 1962az geroztik.
- ♦ 1982an, Euskadi Irratiko “Klasikoak Gaur” irratsaioa egiten hasi zen, eta, urtebete beranduago, meteorologiako parteak ematen hasi zen.
- ♦ Jakin, Argia, Ardatz, Habe eta Egan aldizkarietan parte hartzen du.
- ♦ 1964an, Gregorio Mugikaren *Pernando Amezketarra* itzulpena idatzi zuen *Mi tatarabuelo Pernando Amezketarra* izenarekin. 1999an *Naturaren mintzoa* eta *Zeruan ze berri* (Alberdania argitaletxea) argitaratu zituen.
- ♦ Loturak:
<http://www.euskonews.com/0066zbk/elkar6601eu.html>;
http://eu.wikipedia.org/wiki/Pello_Zabala.
- ♦ Hainbat melodia konposatu du, eta Arantzazuko liturgiako musikaren zati handi bat ere bai.

Eresbilen agertzen diren obrak:

Zerurako oriña	VV
Aintza aitari	S/A/T/B
Aintza Jaunari	S/A/T/B
Atoz, Zorion-Herri	S/A/T/B
Bai, zato Jauna	S/A/T/B
Zure egoitza	T/T/B
Berri on : Alleluia	Co/S/A/T/B
Gabongo ilunabarra	Ti/A/tx/tx
Erromesen arreba	VV
Artaso	S/A/T/B

Iturriak: Auñamendi entziklopedia, ERESBIL, zenbait aldizkari.